

PILOTA JOKOA ETA EUSKAL LITERATURA.—Gure literatura eskolatik irakatsi ezik, ez da harritzekoa ezer ez dugunaren usteak iraun ahal izatea. Eta gure herriko eruditoak ere uste horren menpeko bizi dirala esango nuke.

Pilotarekin ari gera, baina inori pilota egiteko asmorik gabe (erderaz, «sin hacer la pelota» edo). Honegatik, gauzak argi eta garbi jarri nahi ditugu.

Gehienok dakigunez, deporteen bibliografian maixu dugu Joxe Iguaran tolosarra. Eta 1953-an Tolosan izan zen uholdean agiri askoren galera izan ba zuen ere, bere bibliografia artxiboa oso aberatsa da. Hain zuzen, 1965-ean Banco de Tolosa-k argitaratu zuen liburuxka batean «El juego vasco de la Pelota - Autores antiguos y modernos que nos hablan de pelota» lana argitara eman zuen, pilota nolabait aipatzen zuten egileak urtez-urte zerrendan jarriaz. Ez da berriketa, Moisés-engandik hasi eta 1958-ko Lartigue-ra arte.

Zerrenda horretan, konturatzen garanez, erderaz idatzi duten Euskal Herrikoak kontuan izan ditu Iguaranek, eta inoiz euskerazkorik azaltzen ba zaigu, Iztueta edo Zaldubi bezala adibidez, ba dirudi hoi berriak ere erderazko egileengandik edo itzulpenetatik izan dituela. Honegatik, egilearen ondorean ipinten duen urtetik konturatuko gara (liburuaren titulurik ez bai du jartzen) *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira*, itzulpena dala kontuan izan duena, baina ez *Gipuzcoaco provinciaren Condaira*, 1847-an argitaratua. Eta lan honek, bere hirugarren zatia seigarren kapituluari buruzko gauza jakingarriak dakarzki.

Gauza beragatik ez dakar Axular, *Gero* (1643) liburuaren XLIX-gn. kapituluari buruz jardunarren. Ezta Axular baino lehen pilota aipatu zuten Etxeberri Ziburukoa eta Pouvreau, bere hiztegian honek. Iguaranek, 1853-an aipatzen du Gorosabel, baina ez urte berean *Eskaldunac* poema argitaratu zuen Hiribarren, eta «Pilota Yocoa» izenezko poema hasten du 211-garren orrialdean. Juan Antonio Mogel berak ere, 1800-ean argitaratu zuen *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean Eracasteac* liburuaren 63-garren orrialdean.

Aztertzen jarraituko ba gendu, oraindik euskerazko egileen artean askoz ere izen gehiago aurkituko genituzke pilotaren aipamena egin dutenak eta Iguaranen lerroetan ez daudenak. Penagarria, hainbeste hizkuntzetako egileak aipatzen direlarik, gure herrian bertan, eta eruditoen artean gainera, euskaldun egileak ezagunagoak ez izan beharra.

Hau ez da Iguaran personalki salatzearen, eruditoak orok baizik. Bide batez, urregorako, hutsa osatzeko bidea ematen dugu.

J. S. M.